

Van Morrison

Donostiako Trinitate plazan jo zuenetik hiru urte igaro ez direla, Van Morrison berriro izango da Gipuzkoako hiriburuan. Orain, ordea, Belfasteko lehoiak Kursaal jauregian izango du hitzordua bere jarraitzaileekin. Bi kontzertu egingo ditu irlandarrak; lehenengoa Fundazioko bazkideentzat eta bigarrena publiko zabalarentzat.

Lehoia jauregian



rrituko bere ibilbide luzean egin dituen harribitxietako batzuk berreskuratzen baditu. Duela 35 urte baino gehiago Them taldea sortu zuenetik, hamaika maisulan grabatu ditu Morrisonek, eta badu non aukeratu Belfasteko lehoiak.

Caledoniaren bila

60ko hamarkadan bere burua ezagutzera eman zuenetik, irudi zakar eta haserretua landu du etengabe Van Morrisonek. Elkarrizketak ez ditu gustuko, eta zuzeneko kontzertuetan ere ez da errazkerian erortzearen zale. Are gehiago; hitz gutxi —edo bat ere ez— esaten ditu kantuen artean, eta normalean, agertokitik behin alde egin eta gero ez du itzulterako tentaziorik izaten. Kanpoan milaka lagun kantu gehiago jotzeko oihukatzen egon arren.

George Ivan Morrison —hori da bere benetako izena— 1945eko abuztuan jaio zen Belfasten. Bere gurasoak musikariak eta Jehovahren lekukoak ziren, eta ondorioz katoliko eta protestanteen artean banatutako gizarte batean estraino sentitu zen hasieratik. Beharbada horregatik, urteekin eliza ezberdinetara hurbildu da, eta bere diskoetako batzuk mistizismoz eta espiritualtasun handiz jantziak daude. 80ko hamarkadan zientziologiaren elizako kide izatera iritsi zen, baina 1986an, *No guru, no method, no teacher* diskoarekin agur esan zien sineskeriei.

Morrisonek, ordea, ez du etsi nolabaiteko Caledoniaren bilaketan. Bere sustrai zeltiarrek eta horrenbeste maite izan duen musika beltzak bat egingo zuten lurraldearen bila aritu da urteetan, eta pausoz-pauso eta disko-disko bere lurralde propioa eraiki du. *Astral weeks* (68), *Moondance* (70), *Saint Dominic's preview* (72), *It's too late to stop now* (74) —inoiz egin den zuzeneko diskorik be-roenetakoa—, *Veedom fleece* (74), *Into the music* (79), *No guru, no method, no teacher* (86), *Poetic champions compose* (87), *Avalon sunset* (89) eta *Days like this* (95), beste disko batzuen artean, horren adibide dira.

Van Morrison

Donostiako Kursaal auditorioan
Larunbatean, 20:00etan
Igandean, 19:00etan

mikel izarralde

Bai kontzertu baterako bai besterako sarrerak aspaldi agortu ziren, eta beraz, berandu dabilenak ez du Van Morrison zuzenean ikusteko aukera handirik izango. Belfasteko abeslaria Donostian izango zela jakitera eman zen unetik beretik sarrerak abiada ikaragarrian banatu ziren, eta oso denbora laburrean denak saldu ziren. 1999ko uztailan eta Donostiako Jazzaldiaren barruan, kontzertu arrakastatsua eskaini zuen Van Morrisonek 3.000 lagun aurrean, eta harrezkerotik hainbat saio egin izan dira abeslaria Donostiara berriro ekartzeko. Saio horiek alfe-

rrikakoak izan ziren iaz baina, aurtun, aldiz, Kursaal Fundazioak lortu du kantari irlandarra gurera ekartzea. Bitan gainera. Larunbatean lehenik eta igandean bigarrenik. Van Morrison Ingalaterratik iritsiko da Donostiara, Manchesterren eman baitzuen bere azken kontzertua joan den asteburuan. Eta Euskal Herrian jo ondoren, Holandan, Irlandan eta Alemanian jarraituko du birak. Ondoren, uztailaren 17an, Gasteizko jazzaldiaren barruan joko du.

Orain dela bi urte kaleratu zuen Van Morrisonek bere azken diskoa, *You win again*, Linda Gail Lewisekin —Jerry Lee Lewisen arreba gaztea— elkarrekin grabatutakoa. Nolanahi

ere, maiatzaren 13an *Down the road* izeneko disko berria argitaratuko du irlandarrak. Oraindik gauza gutxi jakin da lan berri horri buruz, baina Polydor disketxeak jakitera eman duenez, hamabost grabazio berri

Maiatzaren 13an 'Down the road' disko berria

bilduko ditu, eta besteak beste, *Meet me in the indian summer*, *Steal my heart away*, *Talk is cheap*, *Hey Mr. DJ* (lehenengo singlea) *Whatever happened to PJ Proby?*, *Georgia* —Ray Charlesen bertsioa—, eta *Evening shadows* izenburuko kantuak izango ditu. Disko berria, esan bezala, maiatzean iri-

tsiko da dendetara, eta hortik denbora gutxira, Polydor zigilua abeslariaren disko klasikoak berrargitaratzen hasiko da. Hogeitahamar disko izango dira guztira, eta zerrendan ez dira faltako Morrisonen diskorik

argitaratuko du Van Morrisonek

esanguratsuenak.

Irlandarrak beti erakutsi du soul eta rhythm & bluesz betetako arima, eta bere herrialdeko folkarekiko adina miresmen erakutsi du musika beltzarekiko. Rock zuriko eztarriak beltzena ere deitu izan dute. Donostiako jazzaldian izan zenezan, adibidez, bere arimaren alderik beltzena azaleratu zuen Morrisonek, eta soul, blues eta jazz kutsuko abestiak eskaini zituen. Oraingo honetan, aldiz, musika estilo bati zuzendutako jaialdi baten barruan ez datorrenez, suposatzen da bere aurpegi guztiak erakusteko aukera izango duela. *Down the road* disko berriaren aitzakiaz igoko da Kursaleko agertokira, eta lan horretako kantuak zuzenean aurkeztuko baliatuko du kontzertua. Dena dela, atzera ere begiratu du, eta inor ez da ha-

"salatzen dut"

02/04/05: ELGOIBAR-Gaztetxea
02/04/11: BILBO-Kafe Antzokia
02/05/11: L'HOSPITALET-Salamandra
02/05/17: OIARTZUN-Pagoa
02/05/18: GASTEIZ-Matxete Plaza
02/08/16: ZEANURI-Plaza

Matxete Plaza
948180918

diska berria
salgai!

Manuel de Falla 2
21005 Irunez
948151015 - 948151042

biasta gura, abegunak:
www.gordiscos.com
Email: gori@iet.es

www.elkarrizketa.com